

Deskonfinamendua hasi den arren, oraindik etxean ohi baina denbora gehiago pasa beharko da, eta guk, proposamen berri bat daukagu: Iritsi da orain arteko etxealdian sukaldean hartu duzuen trebezia erakusteko garaia!!

## **AMEZKETAKO I. PINTXO LEHIAKETA** **DIGITALA**

- 1- Parte hartzaileek etxean egindako pintxo baten bi argazki bidaliko dituzte [gazteria@amezketa.eus](mailto:gazteria@amezketa.eus) helbide elektronikora. Argazki batean pintxoaren jabea agertuko da, pintxoa platera batean jarri eta platera eskuetan duela. Beste argazkian pintxoa bakarrik.
- 2- Argazkiak bidaltzeko epea Maiatzaren 12tik 17ra izango da, biak barne.
- 3- Partehartzaileen pintxoaren argazkiak, udaletxeko Facebook kontuan jarriko ditugu ikusgai Maiatzaren 18an, pintxo bakoitza norena den jarri gabe.
- 4- Bi sari banatuko dira:
  - Epaimahaiaren saria:** Maiatzaren 20an erabakiko du epaimahaiak. Epaimahaia kultura zinegotziak eta gazteria teknikariak osatuko dute eta hiru arlo baloratuko dituzte: Itxura, originaltasuna eta elaborazioa.
  - Publikoaren saria:** Apirilaren 20ean, eguerdiko ordubatean, Facebooken “Atsegin dut” gehien dituen argazkiko pintxoa izango da publikoaren sariaren irabazlea.
- 5- Maiatzaren 21ean emango ditugu 2 irabazleen izenak udaleko App-aren, Facebooken eta Whatsapp-aren bidez.

6- Sariak Amezketako ekoizleen produktuekin osatutako loteak izango dira:

**EPAIMAHAIAREN**

**SARIA:**

- Argaia Goenako txerrikia.
- EguzkiLeire gozoak.
- Oteiza Goikoa gazta.
  - Nerea Rotetaren 2 kg babarrun.

**PUBLIKOAREN**

**SARIA:**

- Larte gaztandegiko produktu lotea (gazta urdina, gazta txapala, basurde txorizoa, piper mermelada...)
- EguzkiLeire ogia.
- Oteiza Goikoa gazta.
- Nerea Rotetaren 2 kg babarrun.